

Bihozberaren irmotasuna

Xabier Mendiguren

Argia, 1.962. zk., 2004-10-17: 29.

Bost liburutan izan nuen Martin Ugalderen editore izateko zorte eta ohorea, eta oroipenen altxorrean gordea dut harekin izandako harremana. Lehenengoan, ni artean mutil gazte autogabe eta bera sasoiko gizona, bere autoan joan ginen biok Bilbora, aurkezpena egitera; azkenekoan, bera ordurako etxean gaixo, lanak zituen hitz egiteko, eta nik ere bai hark esan nahi zidana behar bezala ulertzeko. Lehenengotik azkenekora, Martinen irudia geratu zait, ereduakoa beti: samur, lagun, argi, eskuzabal, dotore, xehetasunekiko arreta ageri zuena baina benetan garrantzizkoaren ikuspegi orokorra galdu gabe.

Pertsona baten izaera eta balioa hura ezagutu zutenen gogoan geratu ohi da, hura maite izan zutenen gogoan batez ere. Martin Ugaldek jende asko ezagutu eta tratatzeaz gainera, ibili den leku guztietan utzi du jatortasun eta adiskidetasunezko arrasto sakona, eta, horrebestez, asko gara Martinekiko zordunak, harenganako onginahi eta maitasunezko sentimenduak bizi-bizi dauzkagunak. Horren erakusgarri argiak dira egunotan kaleratu diren iritzi ugari bezain ahobatekoak; nahiko lan izango nuke horiei guztiei ezer berririk gehitzen, eta ez dut ezer erantsiko beraz.

Egia da, ordea, oroipen garbi eta indartsu hori gehienoi lausotu egingo zaigula asteak eta urteak igaro ahala, ez dugu deus berririk deskubrituko denbora errukigabearen higaduraz. Ugalderen kasuan, baina, bere obra geratuko da, bai ezagutu genuenon oroigarri, bai ezagutu ez zuten guztien jakingarri. Eta, edozein idazleri buruz esan baldin badaiteke egilea bere idazlanetan ezagutzen dela, baieztapen horrek are-eta esanahi beteagoa hartzen du Martinen kasuan. Haren eleberri nahiz ipuinetan, izan ere, hezur-haragizko gizona agertzen baita, zuzenean edo zeharka, fikziozko pertsonaien atzean.

Zer ikus liteke Ugalde gizonaz Ugalderen literaturaren bitartez? Batez ere, nire ustez, jendearenganako ardura: gizon-emakume ahul, historiaren jopu, injustizien eta halabeharraren biktima dira sarritan bere pertsonaiak, eta haiekiko maitasun egiazko bat sumatzen zaio, erruki kristautik baduena baina errukia baino harago doana: giza arimaren barrunbeak ez ezik, historiaren mekanismoak ere ezagutzen ditu, eta badaki, hortaz, bidegabekeriak badituela, kaltetunak bezala, bere onuradunak ere.

Historiaren umiliatuekiko elkartasunarekin batean justiziaren aldeko jarrera hori azpimarratuko nioke Ugalderi. Zintzo eta on dena –modako literatura eta zinemaren eraginez beharbada– bigun eta belaxka imajinatu ohi dugu maiz, eta Martinek kontrakoa erakutsi zigun, literaturan bezala bere bizitzaren ereduarekin: malgu eta apal jokatu zuen beti, baina malgutasun horrek ez zuen haize-alde jarri, apaltasun horrek ez zuen handikien aurrean makurrarazi.

Bizi bagara, urteetako lana daukagu ikasgai hori geureganatzen. Martinen oroipenak lagunduko ahal digu!